

32/2017 Ebazpena, otsailaren 8koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideetako zuzendariarena. Horren bidez, agindua ematen da 1 Lehentasuneko eta 2 Lehentasuneko aldi baterako kontratazioko behin betiko zerrenda eguneratuak, lanpostu hutsena eta ordezkapenena (2014ko Aldi baterako kontratazio zerrendak), Osakidetzako webean argitaratzeko lanpostu funtzional hauetarako: Zuzendaritza Nagusiko ofizial gidaria, Osasun-garraioko ofizial gidaria eta Emergentzietako ibilgailuen ofizial gidaria.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiak 2011ko uztailaren 15ean emandako Ebazpenaren bidez, 1282/2011 zenbakiduna (EHAA, 142 zk., 2011ko uztailaren 27koa), onartu egin ziren 2011ko Enplegu Publikorako Eskaintza arautuko zuten oinarri orokorrak; horietan ezarritakoaren arabera eskuratzekoa zen lotura estatutario finkoa Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoko Administrazio Kontseiluaren 2011ko maiatzaren 9ko Erabakiaren bitartez (EHAA, 106 zk., 2011ko ekainaren 6koa), Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan aldi baterako kontratazio zerrendak egin eta kudeatzea arautzen da, 2011ko Enplegu Publikoaren Eskaintzatik datozenak.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideetako zuzendariaren azaroaren 21eko 319/2016 Ebazpenaren bidez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko web orrian 1 Lehentasuneko eta 2 Lehentasuneko aldi baterako kontratazioko behin-behineko zerrendak argitaratu ziren, lanpostu hutsena eta ordezkapenena, lanpostu funtzional hauei dagozkienak: Zuzendaritza Nagusiko ofizial gidaria, Osasun-garraioko ofizial gidaria eta Emergentzietako ibilgailuen ofizial gidaria.

Aldi baterako zerrenda horien kontra egindako erreklamazioak aztertu ondoren, behin betiko zerrenda eguneratuak argitaratzen dira, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan 2015eko abenduaren 31ra arteko emandako esperientzia profesionalarekin eta 2016ko urtarrilean ezarritako epean aurkeztutako euskarako hizkuntza-eskakizunekin.

Era berean, aurtengo lehenengo lauhilekoan zerrenda hauek indarrean dauden beste zerrendekin batera eguneratuko direla adierazten da, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan 2016/12/31ra arte izandako esperientzia profesionala eta ezarritako epean aurkeztutako euskarako hizkuntza-eskakizunak zenbatuz, Erabaki horren 4. Atalean aurreikusitako moduan. Hori dela-eta,


EBAZTEN DUT

Lehenengoa.- 2014ko aldi baterako kontratazioko behin betiko zerrenda eguneratuak, lanpostu hutsena eta ordezkapenena, Osakidetza-zako webean argitaratzeko agintzea, lanpostu funtzional hauetarako: Zuzendaritza Nagusiko ofizial gidaria, Osasun-garraioko ofizial gidaria eta Emergentzietako ibilgailuen ofizial gidaria.

Zerrenda horiek indarrean sartuko dira 2017ko otsailaren 9an.

Bigarrena.- Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko zuzendari nagusiari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau webgunean argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Vitoria-Gasteizen, 2017ko otsailaren 8an


Jose Maria Armentia Macazaga
GIZA BALIABIDEETAKO ZUZENDARIA
DIRECTOR DE RECURSOS HUMANOS

Iz.: Jose Maria Armentia Macazaga

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO GIZA BALIABIDEETAKO